

Garrantzitsua da poltsetan sartzeko aukera duen edonor sartzea; une honetan lana dago. Euskara duten langileak behar dira, administrazioaren 2. HE (B2 maila baliokidea) eskatzen da laguntza judizial eta izapidegilerako, eta 3. HE (C1 maila baliokidea) kudeatzailerako eta mediku forenserako.

Jadanik, poltsetan dauden langile guztiek ez dute ezer egin behar.

LAN-POLTSAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN ALDI BATERAKO LANPOSTUAK BETETZEKO

1. Deialdiaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko aldi baterako lanpostuak betetzeko lan-poltsak sortzea, honako lanbide hauetan: auzitegi-medikuak ,prozesu eta administrazio kudeaketa, prozesu eta administrazio izapidea eta laguntza judiziala.

2. Parte hartzeko betekizunak Lan-poltsetan sartzeko eska dezakete, aurreko puntuan aipatutako kidegoetako batean sartzeko deitutako azken hautaprobetan (2016ko lan-eskaintza publikoa) parte hartu zuten eta indarrean dauden lan-poltsetako kide ez diren pertsonak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a).-ariketaren bat gainditu dute baina ez dute plazarik lortu. .-lehenengo ariketako kalifikazioa 0 puntutik gorakoa izan dute.

b)Espainiako nazionalitatea dute.

c)Adinari dagokionez, 18 urte beteta izatea baina nahitaezko erretirorako adina ez izatea.

d)Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuaren 2010eko irailaren 16ko Aginduan ezarritakoak.

3. Eskariak eta beharrezko dokumentazioa aurkeztu:

Web-orri honetan:

<https://www.euskadi.eus/z16-a2appa/eu/q41auUdaWar/E20/?locale=eua>

Eskaerak bide telematikoak erabiliz bakarrik aurkez daitezke; horretarako, Eusko Jaurlaritzak onartuta dituen sinadura elektronikoaren ziurtagiriak erabili beharko dira, besteak beste:

- Izenpek ematen dituen pertsona fisikoentzako ziurtagiriak, B@kQ barne.
- Sinadura elektronikoaren ziurtagiriak (pertsona fisikoarenak), Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren software-formatuan.

- NAN elektronikoa.b) Epea: 30 egun baliodunoinarriak EHAAn argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita (eskaera aurkezteko azken eguna 2020ko abuztuaren 20an, egun hori barne).

c) Eskaera bakarra aurkez daiteke kidegoko lan-poltsa bakoitzean.

4 .Behin-behineko zerrendak. www.justizia.eus web-orrian eta Justiziako langileen atarian argitaratuko dira. Zerrenda horien aurka alegazioak aurkez daitezke, argitaratzen diren egunetik hamar egun balioduneko epean.

5. Behin betiko zerrendak. www.justizia.eus web-orrian eta Justiziako langileen atarian; horrez gain, behin betiko ebazpenaren laburpena argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

6 . Errekurtsoak. Lan-poltsak irekitzeko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta bihamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean.

Euskal Herrian 2020-07-09